

MUNDUKO GAZTEEN IV. JARDUNALDIA

«Gaurko munduak bear dauan gidari eta liderra dogu Juan Pablo II.» Ta ez jako falta arrazoirik Helder Camara brasildar gotzain sonatuari. Gazteak berealaxe somatu izan dabe Aita Santuaren gidaritza eta lidertasun ori. Gazteen IV. jardunaldian parte artu izan daben euskal gazte talde batekin aurkitu izan naz. Ixe danak ikasle unibertsitarioak. Ona emen bakoitxak bere euskalkietan edo batuan erantzun dabezan moduan jasotako eritxiak.


ANITUA.- Zeintzuk izan dira jardunaldi orretan bizi izan dozuezan gauzarik aipagarrienak?

GAZTEAK.- «Santiagon ikusi eta bizi izan nituen gauzetatik aipagarriena bertan sortu zen anaiartekotasuna giroa. Bertan ez zen ikusten inolako giro arrarorik, denok geunden ideia berberarekin». «Niretzat une hunkigarrienetariko bat Jaunartzea izan zen: milaka eta milaka gazte Jaunaren gorputza hartzen, munduari esaten Santiagora joatea ez zela ibilaldi bat, baizik eta benetazko peregrinazioa». «Momenturik hunkigarriena, Aita Santuaren inguruan hainbeste gazte ikustea izan da. «Inoiz ez dot pentsatu eginkizun berarekin hainbeste gazte dagoenik». «Gozo mendirako igoera. Han zelan edo halan azaltzeko, batasun bat nabaritzen zan jendearen artean». «Arritzekoa da zelan ainbat gaztek egindako millaka kilometro erromes ta batez be jendearen artean bizi izan zan fedea ta anaikortasuna». «Galeguen arrera ona». «Aita Santua gazte elbarrituekin aurkitzea». «Gehien gustatu jatana, hainbeste

gazte eta hain desberdina sentikeraz, bat egin da sentitzea». «Gozo mendiko ekintzak».

A.- *Somatu zenuen gazte talderik beste batzuk baino obeto motibaturik?*

G.- «Zenbait talde hobeto prestatu-rik eta motibaturik nabaritzen ziren ihar-dunaldi honen helburuekiko, baina orokorki, den denak geunden motibazio eta ilusio haundiz, hurak bait gaituen Santiagorako peregrinazioari baietz esatera». «Ainbat gazte-
tek euren barneko sentimenduak obeto kanporatzen ebezan». «Bai



orixe, ageri agerian ikusten zan talde batzuk askotaz bé obeto gertauta joan zirala». «Egia esan, ez neban izan inolako harremanik beste taldeekin». «Bai noski baietz, baina motibazioa fedea da, eta hori da bultzatzen gaituena, ez halako okasioetan, baizik eta urte guztietan zehar». «Dударik gabe, esaterako edozein kale bazterretan ainbat gazte ikusi nebazan penitentzi-autortzak egiten. Olakorik ez dot neure bizitzan inoiz ikusi». «Bai, talde guztiak ez zihozzen berdin prestaturik».

A.- Ze gauza azpimarratuko zeunke Aita Santuak egindako mezuan?

G.- «Aita Santuak esandako guztia hunkikorra izan zen, baina nik nabarmenduko nukeena gazteok animatu eta adore eman nahia. Asko gustatu zitzaidan Aita Santuak esan zuenean gu, gazteok, ez garela geroaldia, baizik eta gaur eguna garela». «Gazte




izatea kurutzeraino serbitzea dala». «Santu izateko ez izan beldurrik». «Eupada gitxiago Aita Santuari eta otoitz geiago Andra Maria-ri». «Aipatzekoa otoitzari emon eutson garrantzia». «Jardunaldiaren lema bera: Ni bidea, egia eta bizitza naz». «Kristau izatea egia- alde jokatzea». «Gazteok garela ebanjelizatze berriaren protagonis-

ta».

A.- Zelan ikusten dozu Aita Santua?


G.- «Giza eta herri eskubideen defendatzailearik porrokatuena». «Ülerkor baina tinko Jesusen bideak azaltzen». «Ez dabil txantxetan, oso serio onartzen gaitu ta esperantza aundia agertzen dau gugan».



«Giza-arazoetan murgildurik fedea bizi dauan gizona. Libanori buruz esandako berbak, negar malkotan itzi ninduen». «Aita Santua gugandik hurbil ikusten dot, bai pertsonaz, bai presentziaz ta bai pentsakeraz». «Gazteongan konfidantza handia duen gizon irmoa. Bizitasun izugarria irradiatzen du». «Gazteekin komunikatzeko gogoia».

A.- *Santiagon alkartutako gaztediak zenbateraino agertzen dau gaurko gaztedia?*

G.- «Proporzio naiko aundi bat, %50». «Naiz eta gazteon irudia, jende nagusian batez ere, jai, dibertsio, ardura-eza eta pasotismoz beterikoa izan, guk espero dugu jendea konturatu daiten gazteok ere badugula ilusioa, konprometitzeko ahalmena eta gure giroan



¿E aquí o Día Mundial da Mocidade?

dena ez dela suntzidura. Nahiz eta gazteon artean giro guztiz ezberdinak izan, Santiagon bildutako gazte taldeak gazteen kopuru handia adierazten du» «Konpostelan bildutako gazteok zerbaiten bila gabizala erakutsi izan genduan». «Han batu ginen gazteak, gaztediaren zati bat baino ez ginen. Beraz, gu ez ginen gaztedi

osoaren ordezkatzaille». «Ez dakit zer erantzun... Auskalo, hainbeste jendearen artean, zer pentsatzen eban bakoitzak eta zelako baloreak eukezan. Halan da guztiz ere, asko joan ginan, fedearen motibazioagaz bultzatuta». «Santiagon alkartu ziran gazteongan ezan ikusten ez litronarik ez drogarik ez mozkorrik». «Bakarrik gazte kristauek ziren».

A. - Zein naziñoetako gazteek ernatu zinduezan geien?

G. - «Hainbeste atzerritar gazte ikusteak harrituta utzi ninduen, baina batez ere errusiarrek eta afrikarrak». «Libanotik etorritako gazteak ta eurok kontau ebezan esperientzi larriak». «Sobietar errepublikatik etorritakoak, balor aundia dauke gazteok, euren errian erlejinoa galazota dagonez». «Italiarrak, oso alkartuta ikusi nebazan. Gabeen suaren inguruan abestuten, dantzatzen, errese-tan...» «Frantsesak, kristau kontzientzi sendoa ikusten jaken».

A. - Usten dozu jardunaldi onek lortu dituala bere elburu nagusiak?

G. - «Askotan nahiko zaila egiten da Kristoren bidea jarraitzea parrokia txiki batetik, eta ez pena merezi ez duela pentsatzen dogulako, baizik eta batzutan erasoagoa ikusten dugulako Eleizatik aldendurik bizi diren gazteen bizitza. Baina Santiagon elkartutako gaztedi guztia ikusi ondoren benetako poztasuna sentitu nuen: zenbat eta zenbat gazte Aita Santuaren deialdiari erantzuten. Berriz ere konturatu nintzen Kristori jarraitzeak pena merezi duela eta aurrera jo behar dugula». «Bai eta maila guztietan». «Bai, holako topaketak berez sortzen du gazteongan izugarrizko eragina». «Dударik gabe, izparringian irakurri dodanez han bildutako hainbat gazte bihotzetan apaiz edo mixiolari edo klausurako lekaiame izateko gogo sortu ei da». «Bai noski, esperientzia zoragarria izan da».

A. - Zelan igaro zenduen gaua «Gozo» mendian?

G. - «Mendian igarotako gaua polita izan zen giro aldetik, baina oso latza tenperatura aldetik. Izugarrizko otza egin zuen, garoak gure saku eta motxila guztiak busti zituen, eta agertu zan lainoarekin ez zen ezer ikusten. Baina denok geunden pozik biharamo-»



nean». «Ni neu Hungaria-
tik etorritako gazte talde
batekin igaro izan neban
gau guztia, naizta tautik
ulertu ez». «Han egotea
eziñezkoa zela ikusiz
gero, Santiagora bajatzea
erabaki nuen eta han gau
pasa egin ondoren,
urrengo goizean berriro
igo». Otzaren otzez eta
lurraren gogortasunaz,
lokartu ezinik baina
pozarren». «Kantuka eta
otoizka su inguruan».



A.- *Zer izan zan gitxién gustau jaizuená?*

G.- «Gitxién gustatu zaidana mendiaren egoera, belarrík ez egotea, dena lur aretsuaz beterik aurkitzea». «Gazte batzuren fanatismoa eta han egoan hautsa, dena zen hautsa». «Aita Santua errege eta politikuekin aurkitzea, oncek nai daben gauza bakarra izparringietan eta biotzeko aldizkarietan agertzea izaten dalako». «Gure taldea hainbeste jenderen artean banandu egin zan eta gure esperientzia apur bat hondatu egin eban». «Gozo mendiko zelaia».



Gazteak otoitzean

A.- *Ze sentidu zenduen euskeraz ofizialki an entzuteak?*

G.- «Poztasun aundia, ez neban esperantzarik euskeraz egingo ebenik». «Oso pozik sentitu ginen denok gure hizkuntza entzute-rakoan». «Niretzat euskaldun gazteon fedea adierazi zuten euskeraz esandako hitz eta otoitz haiek». «Itzelezko poza! Espainiarrak ikasiko eben euskeraz egitea ez dala pekatu». «Sentsazio zoragarria ez nuen euskeraz hitz egingo zuenik».

Badira egun gogoangarriak guztien gogoan gelditzen direnak. Bat, Konpostelan gazteak Aita Santuakin ospatu izan daben jardue-

naldia dogu. An milloi erditik gora alkartu izan diran gazteak ez dira inoiz aaztuko an bizi izan daben anaikortasun eta fede giroa. Jardunaldi onetan parte artu izan daben esperientziak entzunda, jakin badakigu gazteen eziketari ez bakarrik talde txikietan edo bakarka, baita talde aundietan be paregabeko eragina egiten jakela. Orixe izan zan Kristoren bidea be. Bakarka (Nikodemo, Samaritana, Zakeo), talde txikietan (amabi apostoluak) eta talde aundiak (mendiko sermoia, ogi ugairitza). Beste orrenbeste egiten diardu Aita Santuak. Badakigu nori kasu egin.

Gaztedi barri baten atarian gagoz. Eurok izango dira Ebanjelizatze barriaren protagonista. Gazte oncentzat gure txaloak eta laudorioak.

Anitua

